

euskararen berripapera

211



Elebide, hizkuntza-eskubideak babesteko zerbitzua

Elebide hizkuntza-eskubideak bermatzeko bitartekoa da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen zerbitzu honi esker, herritarrek euskararen zein gaztelaniaren erabileraren inguruan dituzten kekek, eskaerak eta iradokizunak aurkez ditzakete.



2009an 225 intzidentzia jaso zituen Elebidek. Horietatik %94 kekek izan dira: %4,5, kontsultak; %1, eskaerak, eta %0,5, iradokizunak. Aurkeztu ziren 212 keketatik, euskara izan da xedea 209tan; gaztelania, ordea, gainerako hiru kasuetan. Elebide berdin-berdin saiatu da hizkuntza bata zein bestea xede duten kekek aztertzen eta konpontzen.

Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburordeak Elebideren kanpaina berria aurkezteko prentsaurrekoan adierazi zuenez, gaztelania eta euskara ez daude maila berean, eta, beraz, neurri positiboak hartu behar dira euskararen alde, betiere herritar guztien hizkuntza-aukerak errespetatuz: «Helburu hori lortzeko martxan jarritako zerbitzuetako bat da Elebide. Bi hizkuntza ofizialen artean —euskararen eta gaztelaniaren artean— elebitasun orekatua lortzea da Elebideren helburu nagusia». Izan ere, Auzmendik argudiatu zuen, hori da bidea herritarrek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatzeko.

“Elebiden zure hizkuntza-eskubideak babesten ditugu”

Lelo horixe izan du irailaren 7tik 14ra bitartean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Elebide ezagutzeko eta herritarrek zerbitzua erabiltzera animatzeko antolatu duen kanpainak. Hainbat euskarri erabili ditu mezua zabaltzeko, hala nola, irratia, prentsa idatzia, markesinak eta Internet. Kanpainari segida emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat gunetan esku-orriak banatu dira Elebideri buruzko informazioarekin. Patxi Martínez de Marigorta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak

prentsaurrekoan adierazi zuenez, bai irudia bai leloa zuzenak eta ulertzeko errazak dira, «bete-betearen zerbitzuaren berri ematera jo nahi izan dugu». Esku-orrietan, bestelako esaldi hauek ere erabili dira: "Babesik handiena zure hizkuntza eskubideentzat" edo "Elebitasun eraginkorra gertuago". Ez da lehen aldia Elebide gizarteratzeko kanpaina egiten dela. 2008. urtean "Gizarte elebiduna lortzeko egiten dugu lan" izeneko leloa erabili zen herritarrek zerbitzua erabiltzera bultzatzeko. 2009ko kanpainan, berriz, "Zure hizkuntza eskubideak ezagutzen dituzu?" lelopean burutu zen.

Zer da Elebide?

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa da. 2006an jarri zuen abian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hiru dira Elebideren eginkizunak: hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea, berme hori eraginkorra izan dadin prozedura bat ezartzea, eta, azkenik, eragindako administrazio eta erakundeekin lankidetzan aritzea, hizkuntza ofizial biak behar bezala ez erabiltzeak sortzen dituen arazoak konpontzeko ●



012



elebide@ej-gv.es



www.euskadi.net/elebide



Donostia-San Sebastián 1
01011 Vitoria-Gasteiz

40.000 ikasle inguru helduen euskalduntze-alfabetatzean

2010-2011 ikasturtea hasi da euskara ikasi nahi duten helduentzat. 40.000 ikasle inguru matrikulatu dira euskaltegi publiko eta pribatuetan. 1.500 bat irakasle dituzte zain ikasgeletan.

HABEk helduen euskalduntzearen 2010-2011 ikasturtea irailean inauguratu zuen. Ohi den bezala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko eta euskaltegieta-ko ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten ikasturteari hasiera emateko, eta hainbat datu eskaini zituzten. 2010-2011 ikasturteko matrikulazio kopuru zehatzik ematerik ez badago ere, Eusko Jaurlaritzak espero du 40.000 ikasle inguru izatea HABEk kudeatzen dituen 105 euskaltegietan. Gorantz doa ikasle kopurua. 2009-2010 ikasturtean 39.373 ikasle aritu ziren ikasten, eta 2008-2009 ikasturtean, 38.957.

Euskararen normalizatorako bidean helduen euskalduntzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu zuen Blanca Urgell Kultura sailburuak, eta horren baitan, euskaltegiek egiten duten lan itzela goraipatu zuen. «Hurbiltasuna, profesionaltasuna eta auke- ra aniztasuna». Hiru hitz horiekin deskribatu zuen sailburuak euskaltegien —publikoen nahiz pribatuen— eguneroko jarduna. Euskaltegiei ez ezik HABEri ere bere esker ona adierazi zion Urgellek eta euskaltegieta-ko ikasleak ere gogoan izan zituen.

Eugenio Mujika HABEren zuzendari nagusiaren hitzetan, HABEren lana eta euskaltegien jardun profesionala eredu bihurtu dira Europako hizkuntza askoren berreskuratze ahaleginetan ari diren erakundeentzat: «Honek bide egokia jorratzen ari garela esan nahi du».

Murrizketak, koiuntura ekonomikoa dela-eta

Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak 2010-2011 ikasturterako HABEk euskaltegiak diruz laguntzera bideratutako kopuruak izan zituen hizpide. Aurtengo ikasturtean euskaltegieta-ko bideratuko diren diru-laguntzetan ia-ko ikasturteare-ko murrizketak egongo dira, egoera ekonomikoa dela-eta. Hala, udal euskaltegiek, 2010-2011 ikasturtean, 11.042.662 euro jasoko dituzte, eta 2009-2010 ikasturtean, 12.603.700 euro. Euskaltegi pri-



Ernesto Martín Peris irakaslearen hitzaldia
 Ekitaldi akademikoan, Ernesto Martín Peris Bartzelonako Unibertsitat Pompeu Fabrakoa irakasle emerituak "El alumno como usuario de la lengua: las prácticas de aula en la enseñanza" ("Ikaslea hizkuntzaren erabiltzaile: hizkuntza irakas-geletako praktika") izeneko hitzaldia eskaini zuen.


batuek aurtengoan 21.550.505 euro jasoko dituzte eta aurrekoan 22.186.000 euro jaso zituzten. Dena dela, aurtengo ikasturtean aurrekoarekin alderatuta murrizketak izan badira ere, 2008-2009 ikasturteare-ko igo egin dira diru-laguntzak. HPSko sailburuordeak adierazi zuenez, «iaztik aurtengora diru-partidak jaitsi egin badira ere, orain bi urtetik hona igo egin dira. 2008-2009 ikasturtearekin alderatuta; beraz, 2010-2011 ikasturtean Udal Euskaltegieta-ko %1,31 euro gehiago bideratuko dira eta Euskaltegi pribatuetara %4,07 euro gehiago».

Bestalde, ikasleentzako diru-laguntzei dagokien- ez, azken hiru ikasturteetan diru-laguntza kopurua bera izango da, hau da, 1.850.000 euro. Horrela, 2009-2010 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gaintitu dituzten ikasleek jaso ahal izango dituzte laguntzak.

HABEren eta euskaltegien erronkak

Eugenio Mujika HABEren zuzendariaren aburuz, HABEk eta euskaltegiek erronka garrantzitsuak dituzte aurrera begira ere: finantziario sistema hobetu, curriculum osatu, azterketak kudeatu, ikas-materiala sortu, teknologia berriak irakaskuntzan txertatu, komunikabideekin elkarlana areagotu, eta irakaskuntza prozesua ebaluatzea, besteak beste ●

Euskaltegieta-ko diru-laguntzen bilakaera



Ikasleak 2009-2010ean euskaltegi motaren arabera



Herritarrek ipuin kolektiboak osatuko dituzte

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak KONTALARIA izeneko kanpaina jarri du abian. Kanpainaren helburu nagusia euskararen erabilera espazio publikoetan eragitea da. Baina, horrez gain, beste helburu batzuk ere baditu: euskararen erabilerari balioa ematea, sormena lantzea, teknologia berrien inguruan jardutea eta belaunaldien arteko harremana eta komunikazioa bultzatzea.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Kontalaria kanpaina abiarazi du. Proiektua hizkuntza sustatzeko elkarreraginezko multimedia ekimena da.

Egitasmoak hiru helburu hauek ditu:

- Euskararen erabilera eragitea eguneroko espazio publikoetan.
- Euskararen erabilerari balioa ematea.
- Sormena eta teknologia berrien inguruan jardutea hizkuntzarekin bat eginez.

Helburuok lortzeko, herritarrei adierazpen tresna bat eskainiko zaie, mintzaira ludikoa eta normalizatu eraginez. Bestalde, euskarak eguneroko espazio publikoetara hurbiltzeko aukera izango du, kaleko ekintza zuzenaren bidez.

Herriz herri ibiliko den unitate mugikorrean, horrela nahi duen orok, ipuin kolektiboa, elkarreraginezkoa eta ikus-entzunezkoa gauzatzeko aukera izango du. Unitate mugikor horren barruan, kontu-kontari jarduteko pantaila eta bideo-kamara izango dira.

Zortzi lagunez osatutako lantaldeak Euskal Autonomia Erkidegoko hogeit hamar herritan egun bateko egonaldia egingo du egitasmoa bere osotasunean gauzatzeko. Herrien hautaketa egiterakoan, bi irizpide erabili dira: batetik, biztanle-kopurua (10.000 biztanle baino gehiago dituztenak), eta, bestetik, herriotako egoera soziolinguistikoa.

Kanpoko animazioaren bitartez, lantaldeak herritarren partaidetza bultzatuko du. Horretarako, bertaraten direnei, funtzionamenduaren mekanika argituiko zaie, irudi eskubideen lagapenaren berri eman eta aurreko parte-hartzaileak kontaturiko istorioa erakutsiko zaio, jarraipena eman diezaion, ipuin kolektiboa osatuz. Istorioa egiteko proposatuko diren gaiak askotarikoak izango dira: urte-sasoierekin lotutakoak, herriko edo hiriko gaiak eta kontaktunak eta beste zenbait.


Kanpainaren ibilbidean bildutako materiala EITBren esku jarriko da, hark bere emisioetan material hori baliatuz programazio berezia egin dezan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren jardurean, erronkarik garrantzitsuena euskararen erabilera sustatzea da eta lehentasunezkoztat du erabilera hori esparru ez formalean (lagunartean, aisialdian, familian eta abarretan) bultzatzea, hau da, auzo-bizitza eta herri-bizitza egiterakoan euskara erabiltzea.

Kontalaria egitasmoaren aurkezpenean, Blanca Urgell Kultura sailburuak adierazi zuenez, Kontalaria proiektuaren bitartez, besteak beste, eguneroko espazio publikoetan euskararen erabilera bultzatu nahi da: «Proiektu honekin, gainera, euskararen erabilerari balioa eman nahi zaio. Betiere, hizkuntzarekin bat eginda sormena eta teknologia berriak landuz». Urgellek, bestalde, inposizioetatik ihes eginez, euskara zabalduko bada, pertsuasioa dela bidea argudiatu eta horretarako ipuinek duten indarra azpimarratu zuen: «Ipuin eder bat irakurtzean edota entzutean edonork sentitu du noiz edo noiz zirrara, magia edota poza. Ez da zalantzarik ipuinak gozamenerako tresna direla. Guk argi daukagu gozamina dela biderik onena euskara bultzatzeko. Ipuinekin eta euskaraz gozamina eragitea lortu ahalko bagenu, benetan izugarria litzateke» ●

Ibilbidearen datak eta herriak

Urriaren 2a	Bilbo
Urriaren 3a	Getxo
Urriaren 9a	Zarautz
Urriaren 10a	Irun
Urriaren 16a	Gasteiz
Urriaren 17a	Mungia
Urriaren 23a	Beasain
Urriaren 24a	Gernika-Lumo
Urriaren 30a	Tolosa
Urriaren 31	Deba
Azaroaren 6a	Eibar
Azaroaren 7a	Oñati
Azaroaren 13a	Barakaldo
Azaroaren 14a	Bermeo
Azaroaren 20a	Arrasate
Azaroaren 21a	Lekeitio
Azaroaren 27a	Laudio
Azaroaren 28a	Galdakao
Abenduaren 3a	Donostia
Abenduaren 4a	Durango



Soziolinguistika eskuliburua argitaratu berri da. Bertan, nazioarteko oinarriko teoriak eta ikerketak, eta Euskal Herrian teoria eta ikerketa horiek izan duten garapena bildu dira. Liburuak sei atal ditu: lehen atalak soziolinguistikari sarrera egiten dio, bigarrena hizkuntza-aldakortasunari buruzkoa da, hirugarrena hizkuntza-ukipenez mintzo da, laugarrena hizkuntza-ideologiaren eta hizkuntza-jarreraren ingurukoa dugu, bosgarrena hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintzari dagokiona, eta, azkena, hizkuntzak aztertzeke ikerketa-metodoen gainekoa. Eskuliburuak bi xede-talde nagusi ditu: unibertsitateko eta mundu akademikoko ikasle, ikerlari eta irakasleak, batetik, eta hizkuntza-plangintzan eta euskalgintzan diharduten eragileak, bestetik. *Soziolinguistika eskuliburua* Soziolinguistika Klusterraren ekimena izan da, eta HPSren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du. Lana euskalgintzako talde zabalak jorratu du ●



Kultura Saila, Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, euskararen eremutik kanpoko erakundeekin ere hartu-emanetan dago, euskara eta euskal kultura sustatu, hedatu eta mugaz gaindi zabaltzeko asmoz. Hori dela eta, joan den irailaren 16an Lourdes Auzmendi, HPSko sailburuordea, eta Aizpea Goenaga, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria, **Institut Ramon Llull**-eko Josep Bargalló zuzendariarekin bildu ziren. Bi Institutuen elkarren arteko lehen hartu-emana izan zen, eta aurrerantzean elkarren arteko lankidetzaren urrats garrantzitsua.

Helburu berarekin, irailaren 20an, Blanca Urgell, Kultura sailburua, eta Aizpea Goenaga **Instituto Cervantes**-eko Carmen Caffarel zuzendariarekin batzartu ziren. Bilera honetan bi instituzio hauek sinatuko duten hitzarmenaren oinarriak ezarri ziren. Elkarlanerako oso gogotsu eta jarrera oso baikorra agertu zuten Ramon Llull Institutuko eta Cervantes Institutuko zuzendariak. Hone-labada, Etxepare Euskal Institutua munduan euskara eta euskal kulturaren zabalkuntzan probetxuzko kidetzak lantzen eta finkatzen hasi da ●



Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten duela gutxi. Adostutakoaren arabera, HPSk 70.000 euroko diru-laguntza emango dio **Topaguneari aurten egingo dituen mintzapraktika programetarako.**

Bosgarren urtez sinatu dute hitzarmena bi entitateek, eta, Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak azaldu zuenez, azken bost urteotan hirukoitzu egin da **mintzapraktika** programetako parte-hartzaile kopurua. Egun, 3.405 pertsonak hartzen dute parte martxan dauden 64 egitasmotan.

Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, berriz, mintzapraktika programak euskara ikastetik erabiltzerainoko bidea egiteko egitasmo interesgarriak direla adierazi zuen. Topagunearekin sinatutako akordioa Kultura Sailak markatutako estrategiarekin bat datorrela gaineratu zuen. «Gure helburua da ahalik eta elkarte gehienekin akordioak sinatzea, elkarlanean sinesen dugulako eta beharrezko ikusten dugulako guztiok norabide berean aritzea indarrak alferrik xahutu gabe», zehaztu zuen ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jauriaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es
- Bertsio digitala jasotzeko egin harpidetza www.euskara.euskadi.net/berripapera helbidean.

